

**2022ko URRIAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA** **9 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2022ko urriaren 27an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

| | |
|-------------------------|---|
| Batzarburua | Xabier Txurruka Fernandez jn. |
| Zinegotziak | Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Leire Arana Olabarrieta and. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita and. |
| Idazkaria | Amaia Gorrotxategi Zubizarreta and. |
| Kontu-hartzailea | Karmele Lizaso Ubera and. |

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDIA

1.- 2022ko IRAILAREN 29ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=1>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2022ko irailaren 26tik urriaren 21era

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=2>

Segidan, Alkatetzak 2022ko irailaren 26tik urriaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2022ko irailaren 26tik urriaren 17ra

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko irailaren 26tik urriaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2022ko 3. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=4>

Udalbatzak jakin berri du 2022ko hirugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2022ko 3. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=5>

Halaber, Udaltzari jakitera eman zaio 2022ko hirugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- 2021 FINANTZA KONTROLEKO EKINTZA PLANAREN BERRI EMATEA

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=6>

Udaltzak 2021. urteko Finantza Kontroleko Ekintza Planaren berri jaso du.

7.- UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO ESTATUTUEN ALDAKETA

Espedientea: 2022III0008

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=7>

2022ko urriaren 6an, idatzia aurkeztu du Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakariak (sarrera-zk.: 11856), udal honetako Udaltzarrari Udal Elkarteko Estatutuak aldatzeko hasierako erabakia berresteko eskatuz.

Aldatzea proposatzen duten artikulua honakoa da:

Indarrean dagoena:

18. artikulua:

“Idazkari eta kontuhartzaile-diruzain gisa jardungo du Udal Elkartea osatzen duten udal batekoa den eta estatu-gaikuntza duen funtzionario batek, kargu horrek dakartzan eginkizunekin.

Kargu hori ezin bada bete aurreko paragrafoan aurreikusitako eran, funtzio publikoko araubideak ezartzen dituen beste aukerak erabiliko dira.”

Honela idatzita geratuko da:

“Udal Elkarteko idazkari eta kontuhartzaile eginkizunak gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioeko funtzionarioek beteko dituzte, aplikagarria den legeriak ezarritakoari jarraikiz.”

Aipatutako eskaerarekin batera, espedientea osatzen duten dokumentuak bidali dituzte, tartean Urola Kostako Udal Elkarteko behin behineko idazkari-kontuhartzailearen aldeko txostena eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko txostena.

Prozedurari dagokionez, Estatutuen 27. artikuluan zehaztu bezala, behin Udal Elkarteko Batzar Nagusiak artikulua onartuta, erabakia jendaurrean egon behar da hilabetez, ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiak txostena egin beharko du eta gero, mankomunatuak udalen gehiengoak Estatutuen artikulua onartu behar du, legezko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin.

Udal Elkarteko Batzar Nagusiak artikulua onartu zuen 2022ko maiatzaren 18an. Erabakia jendaurrean egon da hilabetez (2022ko maiatzaren 31ko GAOn argitaratua) eta ez da alegaziorik aurkeztu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena eman du 2022ko uztailaren 29an.

Hori dela eta, zehaztutako prozedurari jarraituz, Urola Kostako Udal Elkartearen osatzen duten udalbatza osoko bilkurek onartu beharko dute aipatutako artikulua proposamena, gehiengo absolutuz, Estatutuen 27. artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. 2. g) artikulua arabera.

Horiek horrela, ikusita espedientean dagoen dokumentazioa eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Urola Kostako Udal Elkarteak eskatu bezala, bere Estatutuen 18. artikulua aldatzeko erabakia onartzea, honako idazkera emanez:

“Udal Elkarteko idazkari eta kontuhartzaile eginkizunak gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioen funtzionarioek beteko dituzte, aplikagarria den legeriak ezarritakoari jarraituz.”

Bigarrena.- Erabaki hau Urola Kostako Udal Elkarteari jakinaraztea.

8.- ZARAUTZ 2030 PLAN ESTRATEGIKOA.

Espedientea: 2022A9960007

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=8>

ZARAUTZ 2030 PLAN ESTRATEGIKOAREN helburua izan da udalerriaren etorkizuna irudikatzea eta irudi hori errealitate bihurtzeko modua bilatzea. Hau da, eratu den planak lerro estrategiko batzuk ditu egungo errealitatearen eta etorkizunerako nahi duen Zarautzen arteko bidea egiteko.

Horretarako, eta abiapuntu gisa, udalerriaren egungo egoera aztertu da (garapen jasangarriko helburuetan), eta Zarautzko Agenda 2030 zehaztu da; bertan honako hauek sartu dira:

- Formulazio estrategiko bat 2030 urteari begira.
- Ekintza plan bat eta bere jarraipen plana; garapen iraunkorreko udal adierazleen proposamen bat ere sartu da.

Hori guztia gobernantza demokratikoaren printzipioetan oinarrituta egin da. Hortaz, ezinbestekoa izan da Udalaren barruko ikuspegia jasotzeaz gain (politikoa eta teknikoa), herritarren eta eragile sozialen eta ekonomikoen ikuspegiak ere biltzea, parte-hartze prozesu baten bidez.

Espedientea Herritarren Informazio Batzordean eztabaidatu da.

Aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzak aho batez

ERABAKI DU

ZARAUTZ 2030 PLAN ESTRATEGIKOA onartzea.

9.- NAFARROA 53 ETA MENDIBELTZ 8 (TALAIMENDI) PARTZELAREN XEHETASUN-AZTERKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Espedientea: 2022H7000004

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=9>

Aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri ondoren, proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

| | | |
|------------------|----|------------------------------------|
| Aldeko botoak: | 12 | 10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE |
| Kontrako botoak: | – | |
| Abstentzioak: | 9 | 8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak |

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

2022ko uztailaren 11n egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion, baldintzekin, Mendibeltz bidea 8 eta Nafarroa kalea 53 partzelan dauden Itur eta Iturzaeta eraikinak ordezkatzeko xehetasun-azterketari (19.1 area –OD Talaimendi –); Lurain XXI Promoción Inmobiliaria SL da sustatzailea.

Xehetasun-azterketak proposatu du 10 etxebizitza antolatzea, 6 eraikinetan banatuta, sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasuna handitu gabe. Halaber, proposatu du partzelaren hegoaldean 3 metro zabaleko lur-zerrenda bat Udalari doan lagatzea, eta beste 3 metroko zabalerako zerrenda baten gainean aldi baterako zortasuna ezartzea, etorkizunean espaloi bat eraiki ahal izateko Nafarroa kalean, N-634 errepidearen ondoan.

Partzela N-634 foru-errepidearen mugakidea da. Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko txostena jaso zen.

Espedientea jendaurrean jarri zen 20 egun balioduneko epean. Partzelaren mugakideak diren finken jabeei jakinarazi zitzaien hasierako onespeneraren akordioa. Bi alegazio-idazki aurkeztu ziren, interesdun berak sinatuta. Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak alegazioei buruzko txostena egin zuen.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Gaia aztertu ondoren, 12 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Biaingebi SL enpresak aurkeztutako alegazioak partzialki onestea, Hirigintza eta Ingurumen Departamentuaren irailaren 16ko 500/2022 txostenean jasotako proposamenarekin bat etorriz.

Partzelaren sestra gisa hartuko da partzelaren goiko eta beheko kotak lerro batekin lotzearen emaitza. Ondorioz, eraikin berrien beheko solairuetarako proposatutako diren kotak ondorengoak izango dira:

- + 23,50 m, partzelaren iparraldean, Mendibeltz bidearen ondoan, eraikiko diren eraikinetan.
- + 20,00 m, partzelaren erdialdean eraikiko diren eraikinetan.
- + 17,00 m, partzelaren hegoaldean eraikiko diren eraikinetan; horiek daude N-634 errepidetik hurbilen.

Bigarrena.- Behin betiko onespena ematea Mendibeltz bidea 8 eta Nafarroa kalea 53 partzelan dauden Itur eta Iturzaeta eraikinak ordezkatzeko xehetasun-azterketari (19.1 area –OD Talaimendi–); Lurain XXI Promoción Inmobiliaria SL da sustatzailea.

Onartu den agiriak 2022ko iraileko data dauka; Jaime Abalos arkitektoak sinatu du.

Egingo den esku-hartzea zuzkidura-jarduketa gisa hartuko da, eta, beraz, Udalari doan laga beharko zaio, dirutan, hirigintza-eraikigarritasun haztatuaren hazkunderaren % 15a. Obra-lizentziak eman baino lehen kalkulatu eta erabakiko da ordaindu beharreko diru-kopurua.

Era berean, obra-lizentziak eman aurretik formalizatuko dira Nafarroa kalean, N-634 errepidearen ondoan, espaloi bat eraiki ahal izateko lurzoruen lagapena eta aldi baterako zortasuna.

Hirugarrena.- Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, behin betiko akordioaren eduki osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Halaber, akordioa jakitera emango da lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian.

10.- OSTALARITZA ETA MERKATARITZAKO ESTABLEZIMENDUEK BIDE PUBLIKOA ERABILTZEARI ETA OKUPATZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Espedientea: 2020ZEZZ0003

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=10>

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu dute. Ondoren, arratsaldeko zazpiak eta berrogeita zortzian, Alkate jaunak bilkura eten egin du. Handik hamar minutura, zortzietan, berriro ekin diote bilkurari.

Alkateak hitz egiteko 3. txanda zabaldu du udal taldeek bozkaren zentzua argudia dezaten. Ondoren, Erregelamendu Organikoaren 44. artikulua 8 a) puntuan jasotzen denari helduz, gaia mahai gainean uzteko eskaera luzatu du.

44. artikulua 8 a) puntua:

“Udaleko talde politikoaren bozeramaileak edo zinegotziak egoki arrazoituz gero, eska dezake, eztabaidan zehar eguneko aztergaietan sartutako espedienteren bat baztertzea, bertan dokumentu eta txostenak sartzeko; eska dezake, halaber, espedientea mahai gainean gelditzea, eta horri buruzko eztabaida hurrengo saiorako uztea. Bi kasuetan, eskaera bozkatu egingo da, eztabaida amaitu ondoren eta gaiaren mamiari buruzko bozketari ekin aurretik. Gehiengo soilak eskaeraren alde bozkatzeko ez da akordio-proposamena bozkatzeko aukerarik izango.”

Proposamena aztertzeke, arratsaldeko zortziak eta bostetan, Alkate jaunak bilkura eten egin du. Handik hamar minutura, zortziak eta hamabostetan, berriro ekin diote bilkurari.

Gaia mahai gainean gelditzea bozkatu dute, eta emaitza hau izan du:

| | | |
|------------------|----|--|
| Aldeko botoak: | 21 | 10 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak |
| Kontrako botoak: | | |
| Abstentzioak: | | |

Ondorioz, Udalbatzarrak aho batez erabaki du gaia mahai gainean uztea.

11.- EH-BILDU ETA PODEMOS EQUO-BERDEAK UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Onkologikoaren egoera eta Osakidetzaaren integrazioaren inguruko mozioa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=11>

Gai-zerrendako puntu honetan, **Arozena** jaunak, EH-BILDU udal taldeko bozeramaileak, proposamena irakurri du. Hona hemen testua:

ONKOLOGIKOAREN EGOERA ETA OSAKIDETZAREN INTEGRAZIOA DIRELA ETA

Onkologikoko Paziente eta Erabiltzaileen Batzordeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Onkologikoaren egungo egoera eta Osakidetzaren integrazioa direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

Azkeneko urteetan, Donostian kokatutako Onkologikoaren egoera egunetik egunera okertzen ikusten ari gara. Onkologikoko pazienteen elkartearen hitzetan, erabiltzaileak izan direnak eta egun direnak, lehenengo pertsonan bizitzen ari dira Onkologikoko zentroak eta zerbitzuak izan dituen aldatetarako.

Nahiz eta, erakunde desberdinetan gobernuan dauden agintariak esan Onkologikoaren jardueraren %100 diru publikoz finantzatua dagoela, Osakidetzarentzat zentro garrantzitsua dela eta errekurtsio funtsezkoa dela Onkologia arloan Osakidetzaren erreferentziatzeko erakundea bilakatzeko; praktikan guztiz baztertua eta infra-erabilia dagoen espazioa da.

Hain zuzen ere, kezka areagotzen ari da paziente zein profesionalen artean, alde batetik, ikusten dutelako zentroa infra-erabilia dagoela (2. solairua hutsik dago, 51 geletatik 6 edo 8 soilik daude okupatuak, osasun profesionalak lan jarduera gabezi nabarmena dute, eta abar) eta, bestetik, lehen diagnostikotik hasita froga, tratamendu, jarraipen guztia Onkologikoan bertan egiten zen bitartean, orain gauza bakoitza toki desberdinetan egiten delako. Honek, pazienteak egoera nahiko zaurgarrian uzten ditu eta leku batetik bestera ibiltzea derrigortzen ditu. Kezka horren seinalea da, urriaren 15erako pazienteen elkarrekin zein enpresa komiteak deituriko manifestazioa.

Horiek horrela, Onkologikoko Paziente eta Erabiltzaileen Batzordeak, honako mozio arrunt hau aurkezten du:

- Zarauzko Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Onkologikoa zentroa, onkologian izaera monografiako duen zentro gisa definitzea eta zerbitzuak doitzera, horretarako Osasun Saitetik hartu beharreko neurri guztiak hartuz, langileen ordezkaritzarekin elkarlanean, paziente guztiek behar duten osasun arreta jaso dezaten.
- Zarauzko Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari Onkologikoa bere osotasunean Osakidetzaren integraziorako ekimena berrartu dezala, Onkologikoko langileak ere kontutan hartuaz eta eurekin integraziorako plan bat landuz eta adostuz, egutegi baten baitan.
- Zarauzko Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari Onkologikoak lehen zuten aktibitatea berreskuratzeko eta handitzeko neurriak har

ditzala.

Gaia eztabaidatu ondoren, mozioa bozkatu da, eta emaitza hau izan da:

| | | |
|------------------|----|--|
| Aldeko botoak: | 11 | 8 EH Bildu, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak |
| Kontrako botoak: | 10 | 10 EAJ-PNV |
| Abstentzioak: | - | |

Horrenbestez, EH-BILDU eta PODEMOS-EQUO BERDEAK udal taldeek aurkeztutako mozioa onartzea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

12. EAJ-PNV ETA PSE-EE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Osakidetza-Onkologikoaren lotura-hitzarmen berriari buruzko mozioa.

Espedientea: 2022O0010013

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20221027&punto=12>

Gai-zerrendako puntu honetan, **Arana** jaunak, EAJ-PNV udal taldeko bozeramaileak, proposamena irakurri du. Hona hemen testua:

OSAKIDETZA-ONKOLOGIKOAREN LOTURA-HITZARMEN BERRIARI BURUZKOA

Euskadiko Antolamendu Legearen 12. Artikuluan adierazten denez, Euskadiko sistema zuzentzea. Planifikatzea eta programatzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da, eta besteak beste eginkizun hauek ditu:

- Aginpidea erabiltzea dakarten esku-hartzeak, osasun publikoaren babes orokorra bermatzeko beharrezkoak direnak
- Estaldura publikoko osasun prestazioak jasotzeko eskubidea duten pertsonetikiko harremanak antolatzea.
- Osasun helburuak finkatzea, bai eta jarduera, kalitate eta finantzaketa helburuak ere, aurrekontu-kredituen kargura.
- Sistemak dituen titulartasun publikoko baliabideen mugaketa estrategikoa, herritarren osasun beharren arabera.
- Osasun sistema nazionalak eskaintzen dituen oinarrizko prestazioen katalogoa zabaltzea, hala dagokionean.

Osakidetza Onkologikoarekin lotzen duen hitzarmenak, Osasun Sailak bete behar dituen zuzendaritza, plangintza eta programazio eginkizun horiei erantzuten die, eta honako gai hauek jorratzen ditu:

Zentroaren titulartasuna, zerbitzuen finantzaketa eta fakturazioa, kontrol ekonomiko eta finantzarioa, inbertsioak, zuzendaritza-organoak eta jakina, Osakidetzatik zerbitzuetara sartzea eta zerbitzu horiek ematea.

Guzti honetan oinarrituta, Zarauzko Udalbatzari, eztabaidatu eta bozkatu dezan, ondorengo mozioa proposatzen diogu:

MOZIOA

1. Bere eskumenaren izaeraren eta hitzarmenaren edukiaren arabera, Zarauzko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio hitzarmen berriaren edukiaren lehentasunezko irizpidea izan dadila herritarrei arreta hobea ematea eta osasuna zaintzea, Osakidetza eta Onkologikoko profesional guztiek helburu horretarako ematen dituzten sinergia positiboak aprobetxatuz.
2. Zarauzko Udalak, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Onkologikoa zentroa izaera onkologiko monografiakoa duen zentro gisa definitzea eta zerbitzuak doitzea horretarako, Osasun Saitetik hartu beharreko neurri guztiak hartuz beti ere dagozkion prozedurak jarraituz, berme guztiekin, kontuan izanik erakunde pribatu bat izatetik erakunde publikoa izatera pasako den prozesua dela.
3. Zarauzko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzen dio, Onkologikoa osorik Osakidetzan integrazeko ekimena arindu dezala, Onkologikoko agente desberdinen ikuspuntuak aintzat hartuta.

Eztabaidaren hasieran, Delgado Andrea atera egiten da arratsaldeko zortziak eta berrogeita hamazpitan eta bederatziatan itzultzen da. Iritzi-trukaketaren ondoren, mozioa bozkatu da, eta emaitza hau izan da:

| | | |
|------------------|----|----------------------------------|
| Aldeko botoak: | 20 | 10 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE |
| Kontrako botoak: | 1 | 1 Podemos-Equo Berdeak |
| Abstentzioak: | - | |

Horrenbestez, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako mozioa onartzea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

13.- ESKARI-GALDERAK

<http://bideoakta.zarauz.eus/?pleno=20221027&punto=13>

Bertaratutako inork ez du hitzik hartu.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko bederatziak eta bost direnean; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.